

B EREMUA DBH ETAPAN

2016-17 IKASTETXEKO PRESTAKUNTZA

2017KO OTSAILAREN 1EAN



TERESA SANTOS


(naturzientziak@donosgune.org)

1. Egitura espezifikoak

2. Jarduera didaktikoak egituren bidez:

- × Matematika: Uharka betetzen
- × Fisika-kimika: CO₂-aren isurketak
- × Castellano: un viaje a las profundidades
- × Geografia: Populazioaren bilakaera EAEn

B EREMUAREN EZAUGARRIAK



EGITURA ESPEZIFIKOAK

Ez dira egitura simple bezain balioanizdunak, helburu zehatzago baterako baliagarriak.

Zenbakia, Zenbaki berdinak batera, Guztiak bat, egitura simple baten osagarri gisa erabiltzen dira, talde bereko kideak elkarri laguntzea bultzatzeko, guztiek izan dezaten jarduerak egiteko eta egiten jakiteko ardura.


Kontzeptu-mapak lau bandatan, Lau jakintsuak, unitate didaktiko jakin batean landutako edukiak «ikasteko» balio dute.

Zalantzen zakua, Galdera katea, galderak egin ondoren laburpenak, eskemak edo sintesiak egiteko edo talde bereko ikasleei edo taldeen artean. eginiko galderen bitartez.

Hobe guztion artean, talde-lanaren eraginkortasuna erakusteko praktika oso erabilgarria.

JARDUERA : EGITURA ESPEZIFIKO GUZTIAK DENOK EZAGUTZEKO

1. Irakasleak lau taldeetan banatuko dira, arloak nahastuta.
2. Talde bakoitzari egitura espezifikoko multzo bat emango zaio.
3. Taldean egitura bakoitzaren laburpena egingo dute.
4. Talde handian laburpenak kontatuko dira.



Egitura simple baten osagarri gisa erabiltzen dira, talde bereko kideak elkarri laguntzea bultzatzeko, guztiek izan dezaten jarduerak egiteko eta egiten jakiteko ardura.

ZENBAKIA

- Irakasleak ataza bat betetzea eskatuko dio ikasgela osoari (galdera batzuk erantzutea, problema batzuk ebaztea, eta abar). Ikasleek, dagokien oinarri taldean ataza bete beharko dute (1-2-4, folio birakaria., ...)
- Ikasgelako ikasle bakoitzak zenbaki bat dauka (adibidez, ordena alfabetikoan dagokiona). Ataza betetzeko emandako denbora igaro ostean, irakasleak zenbaki bat aterako du poltsa batetik.
- Atera den zenbakia duen ikasleak guztien aurrean azaldu behar du egitekoa, edo, hala badagokio, arbelean egin beharko du, denen aurrean. Ongi egiten badu, bere oinarri taldeak sari bat jasoko du (irakaslearen goraipamena) eta gainerako ikaskideek zoriondu egingo dute.



Egitura sinple baten osagarri gisa erabiltzen dira, talde bereko kideak elkarri laguntzea bultzatzeko, guztiek izan dezaten jarduerak egiteko eta egiten jakiteko ardura.


ZENBAKI BERDINAK BATERA

- Zenbakiaren egitura bezalaxe, oinarrizko egitura baten osagarri gisa erabil daiteke, ariketa edo jarduera jakin batzuk egiteko. Irakasleak egiteko bat emango die taldeei, edo talde bakoitzeko kideek erabakiko dute (Arkatzak erdira egituran bezalaxe) nola egin behar den. Ondoren ataza beteko dute, eta guztiek badakitela egiten egiaztatu beharko dute.
- Aurreikusitako denbora igaro ondoren, irakasleak 1etik 4ra bitarteko zenbaki bat aukeratuko du, oinarri taldeetako kideetako bati dagokiona. Talde bakoitzean zenbaki hori dutenak besteen aurrean aterako dira eta egitekoa beteko dute (problema askatu, galderari erantzun, arazoari irtenbidea bilatu, eta abar). Ongi egiten dutenek sariren bat jasoko dute (irakaslearen goraipamena, guztien txaloa, puntu bat beren taldearentzat...).
- Kasu honetan (Zenbakia egituran ez bezala), oinarri-talde bakoitzeko kide bat (talde bakoitza lau kidek osatzen dute) guztien aurrean jarriko da; ondorioz, talde guztiek dute saria jasotzeko aukera.

Egitura sinple baten osagarri gisa erabiltzen dira, talde bereko kideak elkarri laguntzea bultzatzeko, guztiek izan dezaten jarduerak egiteko eta egiten jakiteko ardura.

GUZTIAK BAT

- Ikasleek taldean egin duten jarduera amaitu dutenean (ariketak, problemak, galderak, ...) oinarrizko egitura kooperatibo baten bidez, irakasleak talde-kide baten ariketa-koaderno hartu eta zuzendu egingo du eta baloratu. Erabaki zer nolako eragina izango duen taldekide guztien kalifikazioan.
- Noski egitura hau noizean behin egingo dela azaldu beharko da, batez ere ebaluazio zein kalifikaziorako erabiliko diren irizpideak ikasleei azaltzerakoan.
- Ebaluazio aldi baten zehar talde guztien koadernoren bat hola ebaluatzen da eta ikasturtean zehar taldekide guztiak.



Unitate didaktiko jakin batean landutako edukiak «ikasteko» balio dute.

Kontzeptu-mapa lau bandatan

- Gai bat bukatzean, amaierako sintesi gisa, talde bakoitzak gaiari buruz gelan landutako guztia laburbilduko duen kontzeptu-mapa edo eskema egin dezake. Irakasleak laguntza emango die ikasleei, guztien artean mapan edo eskeman sartu beharreko atalak erabakitzekeo garaian.
- Oinarri-talde bakoitzaren barruan taldeko kideen artean banatuko dira maparen edo eskemaren zatiak; beraz, ikasle bakoitzak etxetik pentsatuta ekarri beharko du (edo ikasgelan egingo du, bakarka edo bikoteka) egokitu zaion zatia.
- Ondoren, guztien aurrean azalduko dute bakoitzak prestatu duen zatia, egin duten maparen edo eskemaren koherentzia errepasatuko dute eta, beharrezkoa bada, ukitu batzuk emango dizkiote ontzat eman eta bakoitzari kopia bana eman aurretik. Kopia horretatik ikasi ahal izango dute.

Unitate didaktiko jakin batean landutako edukiak «ikasteko» balio dute.

Lau jakintsuak

- Irakasleak gai, problema edo prozedura jakin bat menderatzen duten ikasgelako lau kide aukeratuko ditu (gauza jakin batean «jakintsuak» direnak). Ongi prestatzeko eskatuko die, ikaskide guztiei erakutsi beharko baitiete zer dakiten.
- Saio batean, ikasleak lau kideko talde esporadikoetan banatuko ditu («jakintsuak» ez dira talde horietan egongo).
- Saioaren lehen fasean, talde bakoitzeko kide bakoitzak «lau jakintsuetako» batengana jo beharko du. Hala, talde bakoitzetik «jakintsu» berarengana joandako guztiek elkarrekin entzungo dituzte haren azalpenak.
- Ondoren, saioaren bigarren fasean, ikasle bakoitza bere jatorrizko taldera itzuliko da. Eta bakoitzari egokitutako «jakintsuak» irakatsitakoa azalduko die. Hala, oinarri-talde bakoitzean, bakoitzak, bakarka, «jakintsuarengandik» zer ikasi duen taldean trukatu dute.

Galderak egin ondoren laburpenak, eskemak edo sintesiak egiteko edo talde bereko ikasleei edo taldeen artean. eginiko galderen bitartez.

ZALANTZEN ZAKUA

- Talde-kide bakoitzak folio heren batean sortu zaion zalantza bat idatziko du (bere izena eta taldearen izena ere idatziko ditu). Gero taldeko gainerako kideei azalduko die, norbaitek bere zalantza argitzea posiblea badu jakiteko. Taldeko inork ez badaki erantzuna, irakasleari emango diote eta hark ikasgelako «zalantzen zakuan» sartuko du.
- Saioaren bigarren zatian, irakasleak zalantza aterako du «zalantzen zakutik» eta beste talde bateko norbaiti galdetuko dio argitzerik baduen. Ez badago inor, irakasleak berak argituko du.



Galderak egin ondoren laburpenak, eskemak edo sintesiak egiteko edo talde bereko ikasleei edo taldeen artean. eginiko galderen bitartez.

GALDERA-KATEA

- Egitura egokia da orain arte landutako gaia edo gaiak errepasatzeko eta azterketa prestatzeko, edo, prestakuntzaren ebaluazioa egiteko, bai eta aurreikusitako helburuak zenbateraino lortu diren egiaztatzeko ere. Era berean, irakaslearen programazioa zuzentzeko eta doitzeko ere egokia izango da, beharrezkoa izanez gero.
- Gutxi gorabehera hiru minutuz, talde bakoitzak ordura arte ikasitako gaiari edo gaiei buruzko galdera bat pentsatuko du, eta ondoan duen taldeari planteatuko dio, ordena jakin bati jarraituz. Ikasgelan landuriko gaiei buruzko oinarritzko galderak izango dira (azterketa batean egiteko modukoak), gainerako taldeei laguntzeko pentsatuak. Hiru minutuak igaro ondoren, talde bateko bozeramaileak hurrengo taldeari galdera bat egingo dio, eta bigarren talde horrek erantzun egingo du. Ondoren, bigarren taldeko bozeramaileak hirugarren taldeari beste galdera bat egingo dio, eta horrelaxe bata bestearen segidan, harik eta azkeneko taldeak lehenengoari (hau da, katea hasi duen taldeari) galdera egiten dion arte.
- Talde bakoitzak bi bozeramaile izango ditu: bat, guztien artean pentsatutako galdera botatzeko eta, bestea, guztien artean prestatutako erantzuna emateko. Galdera bat aurretik ere egin badute, ezingo da errepikatu; hurrengo taldeari emango zaio txanda.
- Lehenengo txanda amaitu ostean, hiru minutu gehiago utziko dira galdera gehiago pentsatzeko. Hiru minuturen buruan, beste kate bati ekingo diogu, baina kontrako aldera: hau da, aurreneko txandan galdera egin duenari galdetuko zaio.

Talde-lanaren eraginkortasuna erakusteko praktika oso erabilgarria.

HOBE GUZTION ARTEAN

Talde-lanaren eraginkortasuna azpimarratzeko eta bakarkako lanak baino ideia gehiago eta hobeak sortzen dituela erakusteko egitura.

Lehenik, bakarka, talde kide bakoitzak planteaturiko ataza egingo du, emandako denboran. Denbora amaitzean, talde kideek beren erantzunak edo emaitzak erakutsiko dizkiote elkarri.

Azkenik, zehazturiko denbora amaitutakoan, talde bakoitzeko bozeramaileak bere erantzuna esango dio ikasgela osoari, eta talde bakoitzak bere erantzuna osatu - aldatu, hobetu - ahalko du gainerako taldeen ekarpenen laguntzarekin.

Hortaz, agerian geratuko da - eta hala azpimarratuko du irakasleak egitura hau baliatzen duen bakoitzean, ariketa amaitutakoan guztion artean erantzun edo emaitza hobeak lortzen ditugula.




Talde-lanaren eraginkortasuna erakusteko praktika oso erabilgarria.

ITZAL-DIKTAKETA

Oinarrizko taldeetan egiteko jarduera

Rolak:

1. Ikaslea: irakurlea. Testua diktatzen du
2. Ikaslea: entzulea. Testua entzun eta memorizatzen saiatzen da, idazleek dituzten galderak erantzuteko.
3. eta 4. ikasleak idazleak dira, testua idazten dute eta zalantzak badituzte entzuleari galdetzen diote, inoiz ez irakurleari.



(Shadow Dictation)


JARDUERA : NOLA ANTOLATU JARDUERA DIDAKTIKOAK EGITURA DESBERDINAK ERABILIZ

1. Irakasleak lau taldeetan banatuko dira, arloka: NNZZ, Matematika, GGZZ eta Hizkuntzak.
2. Talde bakoitzari dagokion jarduera didaktikoa emango zaio.
3. Proposatutako jarduera ikasleekin nola egingo dutela osatuko dute, egitura sinpleak eta espezifikoak erabiliz.
4. Talde handian proposatutakoa kontatuko da eta nik osatutako proposamena jarduera bakoitzarentzako kontatuko da.



JARDUERAK: KASU GUZTIETAN PROBLEMEN EBAZPENAK DIRA

Matematika: DBH 4. Uharka betetzen




Fisika-Kimika DBH 3. /4. Eta nik?




JARDUERAK

Lengua y Literatura castellana. DBH 4.
Viaje a nuestras profundidades.



Gizarte Zientziak. DBH 4.
Populazioaren bilakaera EAEn



ESKERRIK ASKO

